


JARDUEREN MEMORIA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa **2024**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JARDUEREN MEMORIA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

Data

2025 Martxoa

Jabea

Eusko Jaurlaritza



www.euskadi.eus

1	SARRERA.....	2
2	PROIEKTUEN ZERREDA	2
2.1	IPPC JARDUEREN SEGIMENDU-IKUSKAPENAK	2
2.1.1	<i>Jarduketak</i>	2
2.1.2	<i>Ondorioak</i>	3
2.2	IPPC EZ DIREN JARDUEREN IKUSKAPEN PROGRAMATUA	6
2.2.1	<i>Jarduketak</i>	6
2.2.2	<i>Ondorioak</i>	7
2.3	INGURUMEN LANKIDETZAKO ERAKUNDEAK IKUSKATZEA (ILE).....	8
2.3.1	<i>Jarduketak</i>	8
2.3.2	<i>Ondorioak</i>	8
2.4	INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA.....	8
2.4.1	<i>Jarduketak</i>	8
2.4.2	<i>Ondorioak</i>	9
2.5	HONDAKINAK LEKUALDATZEA	9
2.5.1	<i>Jarduketak</i>	9
2.5.2	<i>Ondorioak</i>	9
2.6	PROGRAMATU GABEKO ABISUAK ETA IKUSKAPENAK KUDEATZEA	10
2.6.1	<i>Jarduketak</i>	10
2.6.2	<i>Ondorioak</i>	14
2.7	HONDAKINAK ETA MATERIAK KUDEATZEA JARDUERAK AMAITU ONDOREN.	15
2.7.1	<i>Jarduketak</i>	15
2.7.2	<i>Ondorioak</i>	15
3	EMAITZAK	16

1 SARRERA

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritzako Zerbitzuak 2024ko ekitaldirako zehaztutako ikuskapen-programari lotuta egindako jarduketak.

2 PROIEKTUEN ZERRENDIA

Jarraian jasota daude 2024ko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio nagusiak.

2.1 IPPC jardueren segimendu-ikuskapenak

Erreferentzia 2024/01

2.1.1 Jarduketak

2024an, 446 ikuskapen egin dira; horietatik 172¹ enpresaren instalazioetan izan dira, eta 273 dokumentu-arlokoak, ingurumena zaintzeko planak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, ingurumen-organoak egindako errekerimenduei emandako erantzunak egiaztatzeko. Aurrez aurreko ikuskapenei dagokienez, 132 jarraipen-ikuskapenak izan dira (programatuak), eta gainerako 40 ikuskapen programatu gabeak.

Programatutako ikuskapenak jarraipen-ikuskapenak dira, eta arriskuen analisi definitu batean oinarrituta planifikatzen dira. Azterketa hori urtekoa, bi urtekoa edo hiru urtekoa izan daiteke, eta IBBan jasotako instalazioaren ingurumen-alderdi guztiak aztertzen dira. Programatu gabeko ikuskapenak programatutakoez gain egiten diren beste ikuskapen batzuk dira, normalean gorabeherengatik edo abisuengatik egiten direnak, edo neurri zuzentzaileak edo instalazio baten alderdi zehatzak gauzatzen direla egiaztatzeko egiten direnak. Batzuk zein besteak aldeztu aurretik abisatuta edo abisatu gabe izan daitezke, ikuskapenaren helburuaren arabera.

Era berean, adierazi behar da 2024an, baina oraindik 2022ko proiektuarekin lotuta (2022-01), 28 ikuskapen dokumental egin direla, eta 2021arekin lotuta (2021-01) 2 dokumental egin direla.

Ikuskapenari dagozkion aktak egin dira, eta enpresei haiei lotutako txostenak eta errekerimenduak bidali zaizkie, hala badagokio. Era berean, Sailaren webgunean argitaratu dira programatutako eta programatu gabeko aurrez aurreko jarraipen-ikuskapenei buruzko txostenak.

¹ EAEko Sektore Publikoaren Urteko Kontuen betetze-mailari buruzko memorian beste zenbaki batzuk jasotzen dira: zuzenak hemen adierazitakoak dira

2.1.2 Ondorioak

Ondorio nagusia da proiektuaren hasierako programazioa bete dela. Hasiera batean aurreikusitako 144 ikuskapenetatik 132tan birprogramatu da zenbakia (batzuk atzeratu egin dira 2025eko ekitaldira, jarduerarik gabe egoteagatik -hasi ez zelako, aldi baterako lan-erregulazioko espedienteetan edo obretan egoteagatik-, edo instalazioko sailkapena aldatzen den kasuetan lana uzteak kudeatzeko proiektura edo NO IPPC proiektura proiektuz aldatzeagatik). Programatutako eta aktibo zeuden 132 IPPC ikuskapenetatik % 100 ikuskatu dira.

Programatutako ikuskapenak egin ondoren, betetze-maila handia edo ertain-altua duten enpresak % 55 direla ikusi da (73 enpresa). Ikuskapenen % 27k (36 instalazio) betetze-maila ertaina du, eta % 17k betetze-maila txikia eta ertain-baxua (22 instalazio).

Proiektu horri dagokionez, gogoratu behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudian arautzen dela, eta araudi horrek ikuskapen-bisiten aldizkakotasuna ere ezartzen duela, jarduera bakoitzari lotutako ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

Jarraian, proiektuaren datu orokorrak azalduko ditugu. Zehazki, programatutako ikuskapenen ondoren, dagozkien ingurumen-baimen integratuetako baldintzak betetzeari buruzko ondorioak.


IKUSKAPEN PROGRAMATUAK	EZ BETETZERIK GABEKOAK	EZ BETETZEAK DITUZTENAK
132	6	126

1. taula. Ez-betetzeak dituzten eta ez-betetzerik ez duten instalazioen kopurua

2. taulan eta 1. irudian mota bakoitzean detektatutako ez-betetze kopurua agertzen da, ez-betetzearen larritasunaren arabera definituta, programatutako ikuskapenen ondoren.

EZ-BETETZEAK GUZTIRA	Garrantzi txikiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
666	578	81	5	2

2. Taula. Ez-betetzeen kopurua, larritasunaren arabera sailkatuta




1. Irudia. Ez-betetze kopurua, mota bakoitzeko

ARRISKU-KATEGORIA (AK)

3. taulan eta 2. irudian, arrisku-kategoriaren arabera enpresa-kopurua ageri da. Adierazi behar da ikuskapenaren maiztasuna arriskuaren arabera zehazten dela, azken ikuskapena egin ondoren: AK = 1 urtean behin, AK = 2 bi urtean behin eta AK = 3 hiru urtean behin.

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
132	25	62	45

3. taula. Enpresa-kopurua arrisku-kategoriaren arabera




2. irudia. Instalazioen banaketa arrisku-kategoriaren arabera

BETETZE-MAILA

4. taulan eta 3. irudian, ikuskatutako instalazioen betetze-maila ageri da.

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
132	38	35	36	13	10

4. taula. Enpresa kopurua betetze-mailaren arabera



3. irudia. Instalazioen banaketa betetze-mailaren arabera

2.2 IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua

Erreferentzia 2024/02

2.2.1 Jarduketak

IPPC EZ diren jardueren ikuskapena Ikuskaritza Zerbitzuko langileek eta kontratatutako Ingurumen Lankidetzako Erakundeek (ILE) egin dute, ingurumen-organoaren jarraibideen arabera.

2024 Programan helburu espezifiko hauek ezarri ziren: IPPC ez diren 220 operadore ikuskatzea, eta errekerimenduari erantzunik aurkeztu ez dioten edo nahikoa izan ez den 2023an ikuskatutako enpresen % 100en jarraipena egitea ere.

2024ko ekitaldian 230 ikuskapen egin dituzte ILEek. Beraz, lehen helburu espezifikoa % 105ean bete da.

Ikuskapen horietatik, 5 hondakinak ezabatzeko instalazioetara doaz, uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren arabera (hondakinak zabortegetan ezabatzea arautzen duena).

Aplikatu beharreko legeriarekiko desbideratzeak daudela egiaztatu den kasuetan, enpresei zuzentzeko eskatu zaie. Aipatu behar da, desbideratzeak txikiagoak izan diren kasuetan, administratuarentzako izapideak sinplifikatze aldera, zuzentzeko errekerimenduaren ordeztu erantzukizunpeko adierazpen bat egin dela.

Era berean, errekerimenduei emandako erantzunen ikuskapen dokumentalak egin dira, eta, beharrezko kasuetan, bigarren edo hirugarren errekerimenduak ere izapidetu dira.

Bigarren helburu espezifikoari dagokionez, jarraipena egin zaie 2024an ikuskatutako enpresei, desbideratzeak izan zituzten ikuskatutako instalazioen % 100ek errekerimenduari edo erantzukizunpeko adierazpenari erantzun ziezaioten. Hala ere, 13 enpresak ez diete errekerimenduari erantzun.


Ikus daitekeenez, ikuskapenetan askotan detektatzen dira modu batera edo bestera zuzendu beharreko desbideratzeak. Aipatzekoa da ingurumen-araudia oso zabala dela eta etengabeko bilakaeran dagoela, eta proiektu honen esparruan ikuskatutako instalazioek ez dutela ingurumen osora bideratutako giza baliabiderik izaten.

2.2.2 Ondorioak


2024an ikuskapenak aztertzeko, hainbat adierazle aztertu dira: egindako ikuskapenak, betetze-maila eta egindako eskakizunak.

Egindako ikuskapenei dagokienez, 2023an 219 egin ziren eta 2024an 230.

Enpresen betetze-mailari dagokionez, ikus daiteke nabarmen hobetu dela; izan ere, 2023an enpresen % 19k soilik lortu zuten balio ALTUA (4. irudia), eta 2024an, berriz, % 33k (5. irudia). Gainera, betetze-maila BAXUA duten instalazioak % 5etik (2023.an) % 3ra (2024.an) jaitsi dira.



4. irudia. 2023ko Inspekzio en IPPC-tan lortutako betetze maila



5. irudia. 2024ko Inspekzio en IPPC-tan lortutako betetze maila

Instalazioen betetze-maila hobetzearekin batera, egindako eskakizunak % 8 murriztu dira: 2023an errekerimendua egin zitzairen ikuskatutako enpresen % 75i eta 2024an % 67ri.

2.3 Ingurumen Lankidetzako Erakundeak ikuskatzea (ILE)

Erreferentzia 2024/03

2.3.1 Jarduketak

Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE) ikuskatzeko proiekturako ezarritako plangintzaren barruan, 2024an hainbat zeregin egin dira. Alde batetik, Ikuskaritza Zerbitzuko langileen bidez, EAEko atmosferaren arloan jarduten duen ILE bat kontrolatu da in situ.

Gainera, antzemandako akatsak zuzendu dira eta ikuskapenen txostenen eta emaitzen jarraipena egin da.

Era berean, aldaketak erregistratzen eta Ingurumen Lankidetzako Erakunde berriei alta ematen jarraitu da, EAEko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroan. Zehazki, II. mailako Ingurumen Kontroleko Erakunde berri bat erregistratu da. Era berean, irismenak edo administrazio-datuak eguneratzeko lau eskaera jaso dira.

2.3.2 Ondorioak

Ez dira bete 2024 programan ezarritako helburuak eta jomugak. Gutxienez bi ikuskapen in situ egitea zen helburua, eta ikuskapen bakarra egin da.

Bestalde, EAEko Ingurumen Kontroleko Erakundeen Administrazio Erregistroa eguneratu da: II. mailako Ingurumen Kontroleko Erakunde berri bat erregistratu da, eta irismenen edo administrazio-datuen lau eguneratze egin dira.

2.4 Ingurumen-erantzukizuna

Erreferentzia 2024/04

2.4.1 Jarduketak

2024an honako jarduketa hauek egin ziren:

- 54 jakinarazpen operadoreei, ingurumen-arriskuen analisien berrikuspenaren berri emateko.
- Antzemandako akatsak zuzentzeko 34 errekerimendu.

2.4.2 Ondorioak

Web-orrian informazioa mantendu eta eguneratu da, operadoreek kontsultak egin ahal izan ditzaten, beharrezko informazio guztia izan dezaten eta komunikazio telematikoa egin ahal izan dezaten.

[Ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea - Eusko Jaurlaritza](#)

IPPC eta SEVESO instalazioen arteko 54 operadoreen arriskuen analisiak sakon berrikusi dira. Beraz, alderdi hori betetzeak 50etan ezarritako helburu-balioa gainditu du.

Ingurumen Baimen Bakarra (AAU) behar duten eta Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 26ko 26/2007 Legearen III. eranskinean sartuta dauden instalazioek aurkeztutako 14 arrisku-analisi eta erantzukizunpeko adierazpen jaso eta artxibatu dira.

2.5 Hondakinak lekualdatzea

Erreferentzia 2024/05

2.5.1 Jarduketak

2024ko ekitaldian, hondakinen lekualdaketa kontrolatzeko 21 ikuskapen espezifiko egin dira EAeko hainbat operadoreetan, ikuskapen 1 Bilboko portuan eta 22 ikuskapen hondakinak errepidean lekualdatzeko.

Hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa eguneratzen jarraitu du, baita mugaz gaindiko hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei indarreko legeriatik eratorritako betebeharren berri ematen ere.

2.5.2 Ondorioak

Urterako ezarritako programazioa bete da, eta operadoreetan eta iragaitzazko operadoreetan programatutako ikuskapen guztiak egin dira. Hondakinei lotutako garraioaren dokumentazioak pixkanaka hobekuntza dakarrela ikusi du, hondakina sailkatzerakoan eta ondorengo eragiketan betetzeari eta zehaztasunari dagokienez.

Guardia Zibilak antzemandako irregulartasunei buruzko 2 jakinarazpen bidali zaizkie Frantziako agintariei, eta 1 Nafarroako agintaritzari.

2.6 Programatu gabeko abisuak eta ikuskapenak kudeatzea

Erreferentzia 2024/06

2.6.1 Jarduketak


Ingurumenean eragina duten abisuen kudeaketari erantzuna eman zaio EAEn 2024ko eguneko 24 orduetan.

2024an, 659 abisu kudeatu dira.

Lurralde historikoaren arabera, abisuak honela banatzen dira:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ABISU KOPURUA	78	445	136

5. taula. Abisu-kopurua, lurraldearen arabera




6. irudia. Abisuen ehunekoa, lurraldearen arabera

Jarraian, eragindako ingurunearen eta lurraldearen araberako banaketa ikus daiteke:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
URA	13	44	36
AIREA	31	305	70
INGURUNE NATURALA	10	55	9
LURZORUA	24	41	21

6. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta eraginpeko ingurunearen arabera




7. irudia. Abisuak eragindako lurralde eta ingurunearen arabera

Abisuen banaketa lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera 7. taulan adierazten da.

	Errep. Istrip.	Emis. aire	Sut.	Usain.	Hondakina k	Zara .	Lurz.	Ura	Beste
ARABA	1	21	6	2	8	2	15	13	10
BIZKAIA	2	88	7	214	20	8	22	41	46
GIPUZKOA	1	30	6	29	5	9	14	33	9

7. taula. Abisu-kopurua, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera.



10.


8 irudia. Abisuak lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera.

Jarraian, jasotako abisu-kopuruaren banaketa erakusten da, hilabeteka.

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
40	54	52	43	60	38

Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
44	57	77	71	72	51

8. taula. Abisu-kopurua hilabeteka.




9. irudia. Abisuak hilabeteka.

Jarduera kopurua eta mota 9. taulan adierazten dira.

Telfono	E-mail	Zaintza	Beste organo	Bilera	In situ	Artxiboa
380	161	31	25	6	76	6

9. taula. Jarduketa kopurua eta mota.



10. irudia. Jarduketa motak.

2.6.2 Ondorioak

Ingurumenean eragina duten abisuen kudeaketari erantzuteko helburua bete da EAEko eguneko 24 orduetan, 2024 urte osoan. Abisuetako batzuetan jarduera mota bat baino gehiago egin dira abisuaren arazoari erantzuteko.

2023 urtearekin alderatuta, Araban gutxitu egin dira abisuak, eta igo Gipuzkoan eta Bizkaian.

Usainen ondoriozko kexek gora egin dute Gipuzkoan eta Bizkaian. Bizkaian nabarmen egin dute gora 2023. urtearekin alderatuta (214 espediente, 2023. urtean 138 izan ziren), batez Bilbo inguruan (277 abisu, 118 espedientetan bilduta). Gipuzkoan ere gora egin du 2023. urtearekin alderatuta (29 espediente, eta 2023. urtean, berriz, 5), bereziki Errenterian (26 abisu, 21 espedientetan bilduta).

2.7 Hondakinak eta materiak kudeatzea jarduerak amaitu ondoren.

Erreferentzia 2024/07

2.7.1 Jarduketak

2024an egindako jarduketak proiektuan aurreikusitakoak izan ziren. Horien helburu nagusia lurzorua, ura edo airea kutsatzeagatiko ingurumen-arriskua murriztea da, arrazoi ekonomikoengatik jarduera utzi zuten instalazioetan, konkurtso-prozesu bat izan dezaketenetan edo batean sartuta daudenean. Era berean, aldi baterako edo behin betiko jarduera ekonomikoak ez diren beste arrazoi batzuegatik jarduera utzi dutenena. Besteak beste, honako jarduera hauek egin dira:

- Jarduera aldi baterako edo behin betiko utz dezaketen edo jarduera utzi duten jardueren aldizkako identifikazioa.
- Arrisku handikotzat jo diren jarduera batzuk ikuskatzea.
- Jardueren arduradunei hondakinak kudeatzeko, lehengaiak kentzeko eta lurzorua gainean jarduteko errekerimenduak egin dizkie.

2.7.2 Ondorioak

Bertan behera utzitako IPPC jardueren 3 ikuskapen egin dira, eta IPPC ez diren jardueren beste ikuskapen bat².

Instalazioetan dauden hondakinak kentzeko errekerimendu bat bidali da.

² Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuen betetze-mailari buruzko memorian akats bat dago adierazita: "IPPC ez diren 4 enpresari egin zaizkie etete-ikuskapenak".

3 EMAITZAK

2024ko Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programan ezartzen zen bezala, Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Programa erabat garatzeko. Horregatik, eskuragarri dauden baliabideak kontuan hartuta diseinatu zen programa lehentasun handieneko proiektuei hasiera emanez gauzatu da, eta gainerakoak baliabideen erabilgarritasunaren arabera hedatu dira.

Bestalde, nabarmendu behar da, 2019 - 2026 Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako Planak 5. atalean (Jarduerak lehenestea) ezartzen duen bezala, ingurumenean eragina duten gertakari eta istripuen abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea lehentasunezko jardueratzat jotzen dela gainerakoen aldean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Ikuskaritza Zerbitzuaosatzen duten ikuskatzaileek modu jarraituan 2024 Programan definitutako proiektuak gauzatzean lortutako betetze-maila optimotzat jotzen da, eta proposatutako helburuekin osatu da ia osorik.

Alde horretatik, betetze maila baxuena ILEen Ikuskaritza proiektuak izan du, ezin izan baita bete 2024an aurreikusitako bi ikuskapenetako bat, eta baliabideak erabili dira nahitaez bete beharreko beste proiektu batzuk ziurtatzeko, hala nola aipatutakoak, edo legebiltzarreko galderei erantzuteko epeak edo ingurumenari buruzko informazioa eskatzeko epeak betetzeko.

Erreferentzia	Aurreikusitako jarduerak	Egindako jarduerak	%
2024-01	132	132	100%
2024-02	220	230	105%
2024-03	2	1	50%
2024-04	50	54	108%
2024-05	Kualitatiboa (zenbakia zehaztu gabe)	44	100%
2024-06	Kualitatiboa (zenbakia zehaztu gabe)	659	100%
2024-07	Kualitatiboa (zenbakia zehaztu gabe)	4	100%

10. taula. Ikuskatutako jardueren eta egindako ikuskapenen laburpena

Programan jasotako eta ondoren aipatutako proiektuez gain, 2024an honako lan hauek egin dira, 2019-2026 Ikuskapen Planaren jarduerestrategiekin bat etorriz:

Zerbitzuaren ikuskapen-gaitasuna handitzeko estrategiari dagokionez, honako hauek egin dira:

- Ingurumen Lankidetzako Erakundeei 8 industria-jardueratan emisio-, immisio-, usain- edo zarata-neurketak egiteko enkargua ematea.

Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea estrategiari dagokionez, helburuei, estrategiari eta irizpideei dagokienez, honako hau egin da:

- IMPEL European Union Network for the Implementation and Enforcement of the Law ingurumen-ikuskaritzako sare europarrean parte hartzea, hainbat proiektutan.
- IMPEL Europako Sareko ordezkartza bati harrera egitea Ikuskaritza Zerbitzuaren lan egiteko modua berrikusteko: IMPEL Review Initiative Tool (IRI). Azken txostena eskuragarri dago IMPEL- IRI REPORTS : - [Impel](#)
- REDIA Ingurumen Ikuskaritzako autonomiaz gaidiko erakundean parte hartzea